



NOLA ERABILI ONDO KOLIRIOAK

1. Garbitu eskuak ondo ur eta xaboiarekin, eta lehortu.
2. Erabilera-orriak adierazten badu, astindu ontzia.
3. Burua pixka bat atzerantz bota.
4. Hatz erakusleaz, behealdeko betazala jaitsi, hutsune bat egiteko.
5. Beste eskuaz, hartu ontzia punta beherantz duzula eta jarri betazaletik ahalik eta hurbilen, baina ukitu gabe.
6. Begiratu gorantz eta ontzia poliki-poliki estutu beheko betazalean dagoen hutsunean tanta bakar bat erortzeko.
Tanta gehiago erortzen badira, ez eten edo atzeratu hurrengo dosia.



7. Botatzeko zapi batez gehiegizko kolirioa lehortu, botikak larruazala ahalik eta gutxien ukitzeko.

8. Eduki begia une batez irekita; ondoren, itxi leunki.
Jarri hatz bat begi-txokoa, eta egin presio leuna 30 segundoz, begitik kanpoko ondoriorik ez izateko.



9. Itxi ontzia eta garbitu berriro eskuak.



KONTUAN HARTZEKOAK:

- Ordu bera errespetatu beti. Ahaztu egiten bazaizu, tanta bota gogoratzen duzunean.
- Une berean kolirio bat baino gehiago bota behar baduzu, itxaron 5 minutu bien artean.
- Kolirio bat eta pomada bat batera ematen badizkizute, kolirioa hartzen hasi beti, eta gutxienez 5 minutu itxaron pomada emateko.
- Kendu lentillak kolirioa eman aurretik. Kolirio batzuek lentillak aldatu eta hondatu ditzakete; beraz, gomendagarria da erabilera-orria irakurtzea edo zure osasun-profesionalari galdetzea.
- Dosi anitzeko ontziak ireki eta hilabetera botako dira.
- Dosi bakarreko ontziak 24 orduan botako dira.
- Ez partekatu kolirioak senideekin edo lagunekin.